

Euskara ikastaroak

*IVAPekin hitzarmena duten herri-administrazioentzako
deialdia¹*

2013-2014

*eskola-eskaerak
bideratzeko
jarraibideak*

www.ivap.euskadi.net

¹ **Hitzarmena:** 2005-11-30eko Agindua, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena (EHAA: 2005-12-19)

Deialdia: 2013-04-11ko Ebazpena, IVAPeko zuzendariarena. (EHAA: 2013-04-29)

NORI ZUZENDUA

- Deialdian parte har dezakete EAEko herri-administrazioetako langileek, baldin eta euren erakundeak IVAPekin Lankidetzatza Hitzarmena sinatua badu, 2005-11-30eko Aginduaren arabera (EHAA: 2005-12-19). Deialdi honetan eskaintzen den hizkuntza-prestakuntza IVAPek finantzatuko du horretarako duen aurrekontuaren bidez. Aurrekontua nahikoa ez balitz, IVAPek 2005eko azaroaren 30eko Aginduaren 3. artikuluan aurreikusitako lehentasun irizpideak jarraituko ditu.
- Uraren Euskal Agentziako eta Garapen Lankidetzarako Euskal Agentziako langileek ere parte hartu dezakete ikastaro hauetan; Osakidetzako langileak, aldiz, deialdi honetatik kanpo geratzen dira.

ORDU-KREDITUA

- 2005eko azaroaren 30eko Aginduak ordu-kredituen sistema berria ezarri zuen. IVAPek Agindu horretan ezarritakoren arabera finantzatuko du langile bakoitzaren hizkuntza-prestakuntza, lanorduetan zein lanorduz kanpo.

IKASTARO ESKAINTZA

- IVAPen bidez modulu edo ikastaro-mota hauek egin ahal izango dira:
 - o **Barnetegikoak:** lau hileko iraupena izango dute, urritik otsailera. Otsailetik aurrerakoak azaroan argitaratuko den deialdiaren arabera eskatu beharko dira.
 - o **Egunean 5 orduko trinkoak:** lau hileko iraupena izango dute, urritik otsailera. Otsailetik aurrerakoak azaroan argitaratuko den deialdiaren arabera eskatu beharko dira.
 - o **Egunean 2 ordukoak:** ikasturte osoko iraupena izango dute, urritik ekainera. Otsailetik aurrera bakarrik nahi izanez gero, azaroko deialdian eskatu beharko da, beti eta eskatzailea urritik otsailera arte barnetegian edo trinkoetan ibili bada.
 - o **Autoikaskuntza: lanorduz kanpo bakarrik egin ahal izango dira** autoikaskuntzako ikastaroak. IVAPek eskaera kopuru mugatua onartuko dio erakunde bakoitzari: erakundeak egiten dituen lanorduz kanpoko eskaera guztien %20a, gehienez ere. Autoikaskuntzako ikastaroek ikasturte osoko iraupena izango dute, urritik ekainera. IVAPek **matrikula bakarra** ordainduko dio langileari.

IKASTARO ESKAERAK IVAPEN AURKEZTEKO EPEAK

- **Barnetegirako edo 5 orduko trinkoetarako:**
 - o Urritik otsailerako ikastaroak: erakundeek **apirilaren 30etik maiatzaren 31ra bitartean** aurkeztu behar dituzte eskaerak IVAPen.
 - o Otsailetik ekainerako ikastaroak: **azaroko deialdian** ezarriko dira horretarako epeak.
- **Egunean 2 orduko ikastaroetarako:**
 - o Ikasturte osoko ikastaroak, hots, urritik ekainera artekoak: erakundeek **apirilaren 30etik maiatzaren 31ra bitartean** aurkeztu behar dituzte eskaerak IVAPen.
 - o Otsailetik ekainera izango bada, **azaroko deialdian** eman beharko da izena; **baina, beti eta** eskatzailea urritik otsailera barnetegian edo 5 orduko trinkoan ibili bada.
- **Autoikaskuntzako ikastaroetarako (lanorduz kanpo):** ikastaroak urritik ekainera artekoa dira. Erakundeek **apirilaren 30etik maiatzaren 31ra bitartean** aurkeztu behar dituzte eskaerak IVAPen.

ESKAERAK EGITEKO PROZEDURA

- Inprimakia helbide honetan eskura daiteke:
www.ivap.euskadi.net (euskara >euskara ikastaroak >1-2-3HE prestatzeko ikastaroak<
izena emateko inprimakia)
- Ikastaro-modulu **bakarra** adierazi behar da: barnetegia, 5 ordu, 2 ordu edo autoikaskuntza.
- Nahitaez adierazi behar da ikastaroa **lanorduetan ala lanorduz kanpo** egingo den.

- Eskatzailearen izenpea eta erakundearen **oniritzia** agertu beharko dira eskaera orrian. Egoki bete gabeko eskabideak atzera botako ditu IVAPek.
- Bitarteko funtzionarioek eta aldi baterako langileek, gutxienez, 2013ko abenduaren **31ra** arteko lan-hitzarmena dutela **egiaztatu** beharko dute. Horretarako, lan-hitzarmenaren **hasiera eta amaiera egunak** adierazi beharko dituzte eskaera orrian.
- Erakundeek **2013ko apirilaren 30etik maiatzaren 31ra** bitartean bidali behar dituzte baimendutako eskabideak, hurrengo helbide honetara:

IVAP. Euskalduntze Zerbitzua. Donostia-San Sebastián kalea, 1 - 01010 - Vitoria-Gasteiz

LANORDUETAKO ESKOLEN ANTOLAKETA

- Lanorduetako 2 zein 5 orduko ikastaroak dagokienez, IVAPek taldeak osatuko ditu **hiriburuetan** ordutegi zehatzetan, horretarako nahiko eskaera baldin badago.
 - 5 orduko modulua: Bilbon, Donostia-San Sebastiánen eta Vitoria-Gasteizen.
 - 2 orduko modulua goizez (8:00-10:00): Bilbon, Donostia-San Sebastiánen eta Vitoria-Gasteizen.

Gainontzeko ordutegietan ikasi nahi dutenei IVAPek matrikula orria emango die, nahi duten euskaltegi homologatuan matrikula daitezen.

- Bestalde, IVAPeko ikastaldeetan eskolatzen ez direnei^(*) **matrikula orria** bidaliko die IVAPek euren erakundeetara, nahi duten euskaltegi publiko edo pribatu homologatuan izena eman dezaten.

^(*) Ez dira IVAPeko ikastaldeetan eskolatuko, adibidez, barnetegira doazen ikasleak, hiriburuetatik kanpo eskolatzen direnak, Donostian bi orduko ikastaroa eskatzen dutenak...

ADMINISTRAZIOKO IKASTALDEEN EZAUGARRIAK

MODULUA		HERRIA	ORDUTEGIA	HASIERA	AMAIERA
5 ordu		Bilbo eta Donostia-	8:00-14:00	2013-10-01	2014-02-14
		Vitoria-Gasteiz	8:30-14:30		
2 ordu	Goizez	Bilbo, Donostia eta Vitoria-Gasteiz	8:00-10:00	2013-10-01	2014-05-30

LANORDUETAKO IKASTALDEETARAKO MAILAKETA PROBAK

- Lanorduetako taldeak antolatzeko, IVAPek ezinbestekoa du eskatzaileen euskara-maila jakitea. Horretarako, IVAPek **mailaketa proba** deituko du. Dena dela, eskatzailea IVAPekin eskolatu bada azken ikasturtean, azken ebaluazioa erabiliko du hurrengo kurtsoko hasiera-maila ezartzeko. Bestalde, administrazioko ikastaldeetara ez doazen eskatzaileak ez ditu deituko.
- Eskatzailea mailaketa proba **aurkezten ez bada, IVAPek bazter utziko du** haren eskaera. Hala ere, aparteko aukera bat izan dezake, aurkeztu ez izana egoki eta garaiz arrazoitzen badu. Horretarako, haren erakundeak idazki bat bidali behar du IVAPera, beranduen ere, **proba egunetik 2 egun balioduneko epean**. Aparteko dei honetara ere aurkezten ez bada, bertan behera utziko du IVAPek haren eskaera.
- Mailaketa probak ekainaren bigarren hamabostaldian egingo direla aurreikusten du IVAPek.

BESTELAKO TALDEEN EZAUGARRIAK

- Matrikula orriaren bitartez eskolatzen direnek aukeratutako euskaltegiaren eta taldearen egutegia eta ordutegia izango dituzte.
- **Barnetegiko ikastaroak:** Zornotzako barnetegian eta Lazkaoako Maizpide euskaltegian egin beharko dira. Egutegiak eta ordutegiak euskaltegi horien eskaintzaren arabera izango dira. Barnetegiko ikasleak ere matrikula orriarekin eskolatuko dira.

MATRIKULA ORRIEI BURUZKO OHARRAK

- Matrikula orria **agiri ofiziala** eta pertsonala da; bertan ikaslearen izen-abizenak daude jasota eta ezin du beste inork erabili.
- Matrikula orriarekin egiten diren ikastaroek baldintza hauek bete behar dituzte:
 - a) **HABEk homologatutako ikastaroak** izan behar dira.
 - b) **Iraupena:** urritik ekainera bitartekoak izan behar dira. Barnetegiko ikastaroek eta egunean 5 orduko ikastaroak lauhileko iraupena izan behar dute.
 - c) **Autoikaskuntzako ikastaroak:** lanorduz kanpo egin beharko dira, eta gutxienez **190 orduko** iraupena izan behar dute. IVAPek **matrikula orria** emango die ikasleei, euskaltegi publiko edo pribatu homologatu batean, edo autoikaskuntzako zentro homologatu batean matrikulatzeko.
- Matrikula orria euskaltegian entregatu behar da izena ematen denean, betiere **ikastaroa hasi baino lehen**.
- Matrikula orriak baliorik izan dezan **IVAPeko zigilu originala** izan behar du. Hau da, ez da fotokopiarik onartuko.
- **Langilea inon matrikulatzen ez bada**, erakundeak ahalik eta lasterren itzuli behar du matrikula orria IVAPera (beranduenen **urriaren 18an**). Matrikula orria apurtu edo galdu delako ezin bada itzuli, erakundeak IVAPi jakinarazi egin behar dio idatziz.
- Kontuan izan behar da langileak **matrikula orria euskaltegian entregatzen duen unean** gauzatzen duela ikastaroaren matrikula. Une horretatik aurrera, beraz, langilea matrikulatuta dago euskaltegian, eta IVAPek ordaindu egingo du langilearen matrikulari dagokion kostua.

ESKOLETAN HASTEAK

- Ikastaroa hasten den egunean bertan hasi beharko du langileak eskoletara. Didaktika eta antolakuntza arazoak direla medio, **IVAPek ez du onartuko urriaren 18a baino beranduago hasterik** eskoletan. Beraz, IVAPek bertan behera utziko ditu egun horretan eskoletan hasita ez dauden langileen eskaerak eta, ondorioz, ez du bere gain hartuko euren matrikula orrien kostua.

ESKOLETARA JOATEARI UZTEA

- Eskolan hasi ondoren ikasleak ikastaroa behin betiko uzten badu, horren berri eman behar dio ikasleak IVAPi eskola uztea gertatzen den une berean.
Horretarako, "*Jakinarazpena: eskoletara joateari uztea*" izeneko inprimakia (deialdiaren III eranskina) bete eta IVAPera bidali behar du ikasleak.
- Eskola-uztearen data inprimakia IVAPen erregistroan sartu den eguna izango da. Inprimakia IVAPera iritsi arte ez da ordu-kredituaren kontaketa etengo.

Beraz, ordu-kredituaren ondorioetarako, oso garrantzitsua izango da inprimakia lehenbailehen bidaltzea IVAPera.

Inprimakia honako helbide elektroniko honetan eskura daiteke:

www.ivap.euskadi.net (euskara> euskara ikastaroak> zer egin ikastaroa behin betiko uzteko?> eskola uztea jakinarazteko inprimakia)

- Azkenik, IVAPen zeregina izango da ikaslearen erakundeari eskola-uztearen berri ematea.

IKASLEEI BURUZKO INFORMAZIOA ETA DATUEN BABESA

Euskara ikastaroa kudeatu ahal izateko ezinbestekoa da ikasleei buruzko hainbat datu pertsonal jasotzea, tratatzea, fitxategi batean biltzea eta dagokion administrazioari lagatzea. Horrela, IVAPek lanorduetan nahiz lanorduz kanpo ari diren ikasleen asistentzia eta ebaluazio datuak jasoko ditu eta herri-erakunde bakoitzari bere ikasleei dagozkienak jakinaraziko dizkio.

Lankidetzatza Hitzarmenaren ondorioz jasotzen diren datu pertsonalen tratamendua, bai Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, bai datu pertsonalak gordetzen dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun-neurrien Araudiak (ekainaren 11ko 994/1999 Errege-dekretuaren bidez onartutakoa) xedatutakoaren arabera egingo da.

- o Lankidetzatza Hitzarmenera biltzen diren langileek onartu egiten dute bertan ezarritako helburuak betetzeko jasoko diren datu pertsonalen tratamendua.
- o Horrela, onartu egiten dute IVAPek datuak jasotzea eta dagozkien erakundeei jakinaraztea bai euren asistentziari eta ebaluazioari dagokienez eta baita euren aprobetxamenduari buruzko txostenei dagokienez ere.
- o Onartu egiten dute, era berean, datu-lagapenak egitea Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari, normalkuntza planaren betetze maila ebaluatze txostenak egin ditzan, (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 6. art.).
- o Onartu egiten dute, azkenik, datu-lagapenak egitea Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzeko Erakundeari -HABEri-, (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 6. xedapen gehigarriaren arabera).

Langileei buruzko datu pertsonalak Datuak Babesteko Agentzian erregistratutako "Funtzionarioak euskalduntzea" izeneko fitxategian egongo dira. Ikasleek Fitxategiko datuetara sartzeko, datuok aldatu eta deuseztatzeko eskubidea erabili nahi izanez gero, IVAPeko Idazkaritza Nagusira jo dezakete: Donostia-San Sebastián kalea, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko apirilaren 22a